

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Melodia eta sentimendu handiko metala

Leioa eta Algorta artean kokatutako talde honen diskoak atzerrikoa dirudi, eta ez bakarrik ingelesa aukeratu dutelako; baita taldearen eskaintza musikala hemen inguruan ezohiko samarra delako ere. Metala dute oinarri, baina oso zentzu zabal eta batez ere melodikoan hartuta. Egia da tarteka thrash-metal talde gordinen pare jar-tzen direla, baina orokorrean ez da hala gertatzen. Metallica taldeko James Hetfielen antzeko erregistroa dauka Aimar abesla-riak, eta tempo erdiekin asko jokatzen dute. Emaiza dotorea da, soinu oso onekoa, eta ziur atzerrian hemen baino gehiago baloratuko dela. Erreferentzia mistikoak dauden arren, hitzek hausnarketa egiteko bide ona ematen dute. Herriko Burdina webgunetik sortutako Ortots Burdin Hotsak eta Burgosko Fragment arduratu dira lana plazaratzeaz.



I mind

Nodrama

ORTOTS BURDIN HOTSAK /
FRAGMENT

Iraupena: 40'45"
5 euro

NODRAMA

«Historiako momentu batean gizakia erratu egin zen, eta gaur egun daukaguna sortu dugu»

Ingelese abesten duzue eta emaitza atzerrikoa dirudi. Helburua hori izan da ala irten egin zaizue?

Musikan sakonago sartu ginenetik, beti entzun dugu atzerriko musika. Hortaz, Nodrama hasieratik ingelesez jaio zen modu naturalean.

Prometeo. Egindako akatsekin aurrera egitea zaila da? Oroimenak traizionatu egiten gaitu?

Oroimenak beti traizionatzen gaitu. Garrantzia duena oraina da, oraina da existitzen den bakarra. Baina, tamalez, iraganak eta akatsek eragina dute.

"Pray" hitza kantu gehienera ageri da. Errezatzea da gelditzen zaiguna?

Ez gara katolikoak ezta erlijiosoak ere, baina bizitzaren mistika eta misterioak asko gustatzen zaizkigu eta energiari sinesten dugu. Bi aukera baldin badaude, positibo ala negatibo pentsatzea, zertarako denbora galdu txarto pentsatzen? Horri errezatzea besterik ez da geratzen, positiboa, gauzak aldatzeko eta lurra eta gu geu sendatzeko.

Zer ikusten duzue "ispilua"-n begiratzen duzueneari?

Gure zati bat bakarrik. Askok uste dute ispiluan ikusten dutena beraiek direla osotasunean, eta bizitzan alde fisikoa eta besteak pentsatzen dutena besterik ez dute buruan. Ispiluak besteak ikusten dutena azaltzen digu, eta ez dugu barnera begiratzen.

Evolution. Sinesten duzue gizakiaren diruzalekeriak hil eta suntsituko ez duen herrialdean?

Beti egongo da gauzak konpontzeko bidea. Ez daukagu gure antzinako arbasoek bizitza konpre-nitzeko zuten gaitasuna. Historiako momentu batean gizakia erratu egin zen, eta gaur egun daukaguna sortu dugu.

Nori zuzenduta dago Here again? Nork salba gaitzake?

Bakoitzak bere burua salbatu behar du; hortaz, inertziaz denak salbatzeko aukera egongo da. Abesti hori gudan dauden umeei eskainita dago. Ume bat gudara eramatea bizitza lapurtzea bezalakoa da.

